

## PAISAIAREN EUROPAKO HITZARMENA

(Florentzia, 2000.X.20)

### Hitzaurrea

Europako Kontseiluko Estatu Kideek, Hitzarmen honen sinatzaile,

Kontuan hartuz Europako Kontseiluaren helburua haren kideen artean ahalik eta batasun handiena lortzea dela guztion ondare diren idealak eta printzipioak babeste eta sustatze aldera, eta helburu hori bereziki alor ekonomiko eta sozialetan akordioak burutuz erdiesten dela;

Gizarte-premien, ekonomiaren eta ingurumenaren arteko harreman orekatu eta harmoniatu batean oinarritutako garapen iraunkorra lortzeaz arduratuta;

Gogoan hartuz paisaiak interes orokorreko rol garrantzitsua jokatzen duela arlo kultural, ekologiko, ingurumeneko eta sozialetan, jarduera ekonomikorako baliabide onuragarria dela eta haren babesa, kudeaketa eta antolamendua enplegua sortzeko lagungarria izan daitekeela;

Ohartuta paisaiak tokian tokiko kulturen eraketa bultzatzen duela eta Europako natur eta kultur ondarearen funtsezko osagaia dela, gizakien ongizatea eta europar identitatea bermatzeko mesedegarria dela;

Onartuta paisaia biztanleen bizi-kaliterako osagai garrantzitsua dela leku orotan: hiri-nahiz landa-inguruneetan, zonalde narriatu nahiz kalitate handikoetan, aparteko edertasunagatik ospetsu diren eremuetan nahiz arruntagoetan;

Gogoan hartuz nekazaritza, basogintza, industria eta meatzaritzako ekoizpen-tekniken nahiz eskualdeko eta hirigintzako antolamenduaren zein azpiegitura, turismo eta aisiaren esparruko tekniken bilakaerak eta munduko ekonomian gertatzen ari diren aldaketek kasu askotan paisaiaren eraldaketa bizkortu dutela;

Kalitate handiko paisaiez gozatzeko eta paisaien garapenean eraginkorki parte hartzeko xede orokorrari erantzuteko gogoz;

Sinetsita paisaia banakoaren eta gizartearen ongizaterako funtsezko osagaia dela eta hura babestu, kudeatu eta antolatzeak guztiontzat eskubideak eta erantzukizunak dakartzala;

Kontuan izanda natur eta kultur ondarearen babes eta kudeaketaren, eskualdeko eta espazioaren antolamenduaren, autonomia lokalaren eta mugaz gaindiko lankidetzaren alorrean nazioarte-mailan diren testu juridikoak, eta zehazki honakoak: Europako basabizitzaren eta natur ingurunearen kontserbazioari buruzko hitzarmena (Berna, 1979ko irailak 19), Europako ondare arkitektonikoa babesteko hitzarmena (Granada, 1985eko urriak 3), ondare arkitektonikoa babesteko Europako hitzarmena (berraztertua) (Valleta, 1992ko urtarrilak 16), erkidego edo lurralde-agintaritzen arteko mugaz gaindiko lankidetzari buruzko Europako Esparru Hitzarmena (Madril, 1980ko maiatzak 21) eta haren protokolo gehigarriak, Autonomia Lokaleko Europako Gutuna (Estrasburgo, 1985eko urriak 15), biodibertsitateari buruzko hitzarmena (Rio de Janeiro, 1992ko ekainak 5), munduko kultur eta natur ondarea babesteko hitzarmena (Paris, 1972ko azaroak 16) eta ingurumen-alorreko prozedura judizialak eta

informazioa eskuratzeari eta jendearen partaidetza bermatzeari buruzko hitzarmena (Aarhus, 1998ko ekainak 25);

Onartuta Europako paisaien kalitatea eta aniztasuna guztion baliabidea dela, eta garrantzitsua dela hura babestu, kudeatu eta antolatze elkarlanean aritzea;

Europako paisaia guztiak babestu, kudeatu eta antolatze berriaz eraturako bitarteko berri bat ezartzeko gogoz;

Honakoa hitzartu dute:

## **I. KAPITULUA – XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. artikulua – Definizioak**

Hitzarmen honen ondorioetarako, definizio hauek egin dira:

a. "Paisaia": lurraldearen edozein zati, biztanleriak hautematen duen moduan, zeinaren izaera natur edota giza faktoreen ekintzaren eta elkarreraginaren emaitza baita;

b. "paisaiaren alorreko politika": paisaia babestu, kudeatu eta antolatze aldera berriazko neurriak hartzea ahalbidetuko duten printzipio orokorren, estrategien eta jarraibideen formulazioa agintari publiko eskudunen aldetik;

c. "paisaiaren kalitate-helburua": paisaia zehatz baterako, biztanleek haien ingurunearen paisaia-ezaugarriei buruz dituzten nahien formulazioa agintari publiko eskudunen aldetik;

d. "paisaien babesak": paisaia baten alderdi esanguratsu edo bereizgarriak kontserbatu eta mantentzera bideratutako ekintzak, pasaiak haren natur konfigurazioagatik edota gizakiaren ekintzagatik duen ondareko balioaren arabera;

e. "paisaien kudeaketa": garapen iraunkorreko ikuspegi batetik, paisaiaren mantentze egokia bermatzera bideratutako ekintzak, prozesu sozial, ekonomiko eta ingurumenekoek eragindako transformazioak gidatu eta egokitze aldera;

f. "paisaia-antolamendua": paisaiak hobetu, berreskuratu edo sortze aldera batik bat etorkizunera begira egiten diren ekintzak.

### **2. artikulua – Aplikazio-esparrua**

15. artikuluan jasotako xedapenei jarraiki, Hitzarmen hau Alderdien lurralde osoan aplikatuko da, eta natur, landa, hiri eta hiri-inguruko eremuak barne hartuko ditu. Lehorra eta itsasoa zein barruko urak ere hartuko ditu. Apartekotzat har litezkeen paisaiak nahiz arruntak edo narriatuak ditu jomuga.

### **3. artikulua – Helburuak**

Hitzarmen honen helburua paisaien babesak, kudeaketa eta antolamendua sustatzea da, eta Europar alor honetako lankidetzak antolatzea.

## II. KAPITULUA – ESTATU MAILAKO NEURRIAK

### 4. artikulua – Eskumenen banaketa

Alderdi bakoitzak Hitzarmen hau, eta batik bat 5 eta 6. artikulua, nork bere eskumen-banaketaren arabera aplikatuko du, bere printzipio konstituzionalei eta antolaketa administratiboari jarraiki, eta subsidiarotasun-printzipioa errespetatuz, Autonomia Lokaleko Europako Gutuna kontuan izanda. Hitzarmen honen xedapenen kaltetan izan gabe, Alderdi bakoitzak Hitzarmen honen aplikazioa bere politika propioekin bateratuko du.

### 5. artikulua – Neurri orokorrak

Alderdi bakoitzak honako konpromisoak hartzen ditu:

a. paisaiak juridikoki ezagutzea giza ingurunearen funtsezko osagai gisa, gizaki ororen ondarearen aniztasunaren adierazgarri eta haren identitatearen oinarri moduan.

b. paisaien alorrean haiek babestu, kudeatu eta antolatzera bideratutako politikak zehaztu eta aplikatzea, 6. artikuluan jasotako berariazko neurriak hartuz;

c. jendeak, tokiko eta eskualdeko agintariek eta beste alderdi interesdun batzuek aurreko b letran aipatutako paisaiaren alorreko politiken formulazio eta aplikazioan parte hartu ahal izateko prozedurak ezartzea;

d. lurralde- eta hirigintza-antolamenduko politiketan eta alor kultural, ingurumeneko, nekazaritzako, sozial eta ekonomikoan garatzen dituzten politiketan nahiz paisaian eragin zuzen edo zeharkakoa izan lezaketen bestelako edozein politiketan paisaia txertatzea.

### 6. artikulua – Neurri zehatzak

#### A. Sentsibilizazioa

Alderdi bakoitzak konpromisoa hartzen du gizarte zibilak, erakunde pribatuek eta agintari publikoek paisaien balioari nahiz haien rolari eta eraldaketari buruz sentsibilizazio handiagoa gara dezaten bultzatzeko.

#### B. Trebakuntza eta heziketa

Alderdi bakoitzak honakoa sustatzeko konpromisoa hartzen du:

a. paisaiak balioesteko eta haietan esku-hartzeko adituak trebatzea;

b. paisaien politika, babes, kudeaketa eta antolamenduari buruzko diziplina anitzeko trebakuntza-programak sektore pribatu eta publikoko profesionalentzat nahiz elkarte interesdunentzat;

c. eskola- eta unibertsitate-mailako ikastaroak, dagozkion ikasgaien baitan paisaien inguruko balioak eta haien babes, kudeaketa eta antolamenduari buruzko auziak aztertuko dituztenak.

#### C. Identifikazioa eta kalifikazioa

1. Alderdi interesdunen parte-hartze eraginkorraz, 5.c artikuluari jarraiki eta paisaien ezagutzan sakontze aldera, Alderdi bakoitzak honako konpromisoak hartzen ditu:

a. i) bakoitzari dagokion lurraldearen luze-zabalean paisaiak identifikatzea;

ii) paisaien ezaugarriak eta haiek eraldatzen dituzten indar eta presioak aztertzea;

iii) eraldaketen berri jasotzea;

b. horrela definitutako paisaiak kalifikatzea, Alderdi eta biztanleria interesdunek esleitzen dizkieten balio propioak aintzat hartuz.

2. Identifikatzeko eta kalifikatzeko prozedurak gobernatuko dituzten oinarriak 8. artikuluari jarraiki Europa mailan Alderdiek antolatutako esperientzia- eta metodologia-trukeak izango dira.

#### *D Paisaiaren kalitate-helburuak*

*Identifikatu eta kalifikatutako paisaiarentzat kalitate-helburuak zehazteko konpromisoa hartzen du Alderdi bakoitzak, 5.c artikuluari jarraiki jendeari kontsultatu ondoren.*

#### *E Aplikazioa*

Paisaien alorreko politikak aplikatzeko, Alderdi bakoitzak paisaia babestu, kudeatu edota antolatzera bideratutako esku-hartze bitartekoak ezartzeko konpromisoa hartzen du.

### **III. KAPITULUA – EUROPA MAILAKO LANKIDETZA**

#### **7. artikulua – Nazioarteko politikak eta programak**

Alderdiek konpromisoa hartzen dute nazioarteko politiken eta programen pasaia aldetiko dimentsioa elkarlanean aztertzeke eta, beharrezkoa balitz, horietan paisaiari buruzko gogoetak txertatzeko.

#### **8. artikulua – Elkar laguntza eta informazio-trukea**

Alderdiek elkarlanean aritzeko konpromisoa hartzen dute Hitzarmen honen beste artikulua batzuei jarraiki hartu diren neurriak eraginkorragoak izan daitezen, eta zehazki:

a. paisaien alorrean elkarri laguntza zientifiko eta tekniko eskaintzea, esperientziak eta ikerketa-proiektuen emaitzak partekatuz eta trukatur;

b. paisaien alorrean adituen trukaketa sustatzea, batik bat trebakuntzari eta informazioari begira;

c. Hitzarmen honen xedapenetan jasotako auzi guztiei buruz informazioa elkartrukatzea.

#### **9. artikulua – Mugaz gaindiko paisaiak**

Alderdiek konpromisoa hartzen dute pasaien alorrean mugaz gaindiko lankidetzak bultzatzeko eta, beharrezkoa izanez gero, elkarrekin programak landu eta burutzeko.

#### **10. artikulua – Hitzarmenaren aplikazioaren jarraipena**

1. Hitzarmenaren aplikazioaren jarraipena egiteaz arduratutako Adituen Batzorde eskudunak, Europako Kontseiluaren Estatutuko 17. artikulua araberaz ezarriak, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak izendatuko ditu.

2. Adituen Batzordeen bilera bakoitzaren ondoren, egindako lanari eta Hitzarmenaren funtzionamenduari buruzko txosten bat helaraziko dio Europako Kontseiluko Idazkari Nagusiak Ministroen Batzordeari.

3. Adituen Batzordeek Europako Kontseiluak eskaintako Paisaiaren Sari bat emateko eta haren araudia xedatzeko irizpideak proposatuko dizkiote Ministroen Batzordeari.

#### **11. artikulua – Europako Kontseiluaren Paisaiaren Saria**

1. Europako Kontseiluaren Paisaiaren Saria, Hitzarmen honetako Alderdi baten paisaia-politikaren baitan paisaia babestu, kudeatu edota antolatzeneko politika bat edo neurri batzuk, denboran zehar eraginkorrak izan direnak eta Europako lurraldeko beste agintarientzat eredu garrari izan daitezkeenak, hartu dituzten tokiko eta eskualdeko agintariei nahiz haien elkartei eman dakieke. Saria eman dakieke, halaber, paisaiaren babes, kudeaketa edo antolamenduaren alorrean ekarpen bereziki garrantzitsuak egin dituzten gobernu kanpoko erakundeei.

2. Europako Kontseiluaren Paisaiaren Sarirako hautagaiak Alderdiek beraiek aurkeztu beharko dituzte 10. artikuluan aipatu Adituen Batzordeen aurrean. Tokiko eta eskualdeko mugaz gaindiko agintariei nahiz tokiko eta eskualdeko agintari-elkarte interesdunak sarirako hautagai izan ahalko dira, beti ere dagokion paisaia elkarrekin kudeatzen badute.

3. 10. artikuluan aipatu Adituen Batzordeek proposatuta, Ministroen Batzordeak Europako Kontseiluaren Paisaiaren Saria emateko irizpideak ezarri eta argitaratuko ditu, dagokion araudia xedatuko du eta Saria emango.

4. Europako Kontseiluaren Paisaiaren Saria ematearen xedea sarituei dagozkion paisaien babes, kudeaketa edota antolamendu iraunkorra bermatzea da.

### **IV. KAPITULUA – AZKEN XEDAPENAK**

#### **12. artikulua – Beste bitarteko batzuekiko erlazioak**

Hitzarmen honen xedapenek ez dute eraginik izango jadanik badiren edo etorkizun diren estatuko edo nazioarteko beste bitarteko lotesle batzuetan paisaiaren babes, kudeaketa eta antolamenduari dagokionez jasotako xedapen zorrotzagoetan.

#### **13. artikulua – Sinatzea, berrespena eta indarrean jartzea**

1. Hitzarmen hau Europako Kontseiluko Estatu kide guztiei zabalik dago sinatu ahal izan dezaten. Sinadura berretsia, onetsia edo onartua izan beharko da. Berretsia, onetsi edo onartzeko bitartekoak Europako Kontseiluko Idazkari Nagusiaren esku egongo dira.

2. Europako Kontseiluko hamar Estatu kidek Hitzarmenaren bitartez eta aurreko ataleko xedapenen arabera lotetsiak geratzeko adostasuna adierazten duten data abiapuntu harturik, Hitzarmena indarrean sartuko da data horretatik hiru hilabeteko aldia iraungi eta hurrengo hilaren lehen egunean.

3. Hitzarmenaren bitartez lotetsia geratzeko adostasuna gerora adierazten duen edozein Estatu sinatzailerik dagokionez, Hitzarmena indarrean sartuko da berretsia, onetsi edo onartzeko bitartekoa paratzen den datatik hiru hilabeteko aldia iraungi eta hurrengo hilaren lehen egunean.

#### **14. artikulua – Atxikipena**

1. Hitzarmen hau indarrean sartzeaz geroztik, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak Europako Erkidegoa eta Europako Kontseiluko kide ez den edozein europar Estatu Hitzarmenari atxikitzen gonbidatu ahal izango ditu, Europako Kontseiluaren Estatutuko 20.d artikuluan aurreikusitako gehiengoaz eta Ministroen Batzordeko kide izateko eskubidea duten Estatuaren aho bateko bozketaz.

2. Atxikitzen den edozein Estatuari edo, atxikiko balitz, Europako Erkidegoari dagokionez, Hitzarmena indarrean sartuko da Europako Kontseiluko Idazkari Nagusiaren esku dagoen atxikitze-bitartekoa paratzen den datatik hiru hilabeteko aldia iraungi eta hurrengo hilaren lehen egunean.

#### **15. artikulua – Lurralde-aplikazioa**

1. Sinatzen den edo berretsia, onetsi, onartu edo atxikitzeko bitartekoa paratzen den unetik, edozein Estatuk edo Europako Erkidegoak zehaztu ahal izango dute Hitzarmen hau zein lurralderi aplikatuko zaion.

2. Gerora, edozein Alderdik, Europako Kontseiluko Idazkari Nagusiari zuzendutako adierazpen baten bidez, Hitzarmen honen aplikazioa adierazpenean zehaztutako beste edozein lurraldera hedatu ahal izango du. Hitzarmena aipatu lurraldeari begira eraginkorra izango da Idazkari Nagusiak adierazpena jasotzen duen datatik hiru hilabeteko aldia iraungi eta hurrengo hilaren lehen egunean.

3. Aurreko bi atalei jarraiki egindako edozein adierazpen, bertan aipatutako edozein lurralderi buruzkoa, Idazkari Nagusiari zuzendutako jakinarazpen baten bidez indargabetu ahal izango da. Aipatu indargabetzea eraginkorra izango da Idazkari Nagusiak adierazpena jasotzen duen datatik hiru hilabeteko aldia iraungi eta hurrengo hilaren lehen egunean.

#### **16. artikulua – Bertan behera utzi**

1. Edozein Alderdik, edozein unetan, Hitzarmen hau bertan behera utzi ahal izango du, Idazkari Nagusiari zuzendutako jakinarazpen baten bidez.

2. Aipatu bertan behera uztea eraginkorra izango da Idazkari Nagusiak adierazpena jasotzen duen datatik hiru hilabeteko aldia iraungi eta hurrengo hilaren lehen egunean.

### **17. artikulua – Zuzenketak**

1. Edozein Alderdik edo 10. artikuluan aipatu Adituen Batzordeek Hitzarmen honi begira zuzenketak proposatu ahal izango dituzte.

2. Edozein zuzenketa-proposamen Europako Kontseiluko Idazkari Nagusiari jakinaraziko zaio, eta hark, era berean, proposamena Estatuko Kontseiluko Estatu kideei, gainerako Alderdiei eta kide izan gabe 14. artikuluan xedatutakoaren arabera Hitzarmen honi atxikitzeko gonbidapena jaso duen Europako edozein Estaturi helaraziko die.

3. 10. artikuluan aipatu Adituen Batzordeek edozein zuzenketa-proposamen aztertuko dute, eta Ministroen Batzordean aurkeztuko dute, onartua izan dadin, Alderdien ordezkarien hiru laurdenen gehiengo batek onartutako testua. Ministroen Batzordeak testua onartu ondoren, Europako Kontseiluaren Estatutuko 20. artikuluan aurreikusitako gehiengoaz eta Ministroen Batzordeko kide izateko eskubidea duten Estaturen aho bateko bozketaz, testu hori Alderdiei igorriko zaie, haiek ontzat eman dezaten.

4. Edozein zuzenketa indarrean sartuko da hura onartu duten Alderdiei dagokienez, Europako Kontseiluko hiru Estatu kidek Idazkari Nagusiari haren onarpena jakinarazten dioten datatik hiru hilabeteko aldia iraungi eta hurrengo hilaren lehen egunean. Gerora zuzenketa onartzen duen edozein Alderdi dagokionez, aipatu zuzenketa indarrean sartuko da aipatu Alderdiak Idazkari Nagusiari haren onarpena jakinarazten dion datatik hiru hilabeteko aldia iraungi eta hurrengo hilaren lehen egunean.

### **18. artikulua – Jakinarazpenak**

Europako Kontseiluko Idazkari Nagusiak Europako Kontseiluko Estatu kideei edota Hitzarmen honetara atxikitako edozein Estaturi edo Europako Erkidegoari jakinaraziko die:

a. edozein sinatze;

b. berretsi, onetsi, onartu edo atxikitzeko edozein bitarteko paratu izana;

c. hitzarmen hau indarrean sartzen den edozein data, 13, 14 eta 15. artikuluei jarraiki;

d. 15. artikulua arabera egindako edozein adierazpen;

e. 16. artikulua arabera egindako edozein denuntzia;

f. 17. artikuluari jarraiki egindako edozein zuzenketa-proposamen edo onartutako edozein zuzenketa nahiz hura indarrean sartu den data;

g. hitzarmen honi buruzko beste edozein ekintza, jakinarazpen, informazio edo komunikazio.

Honen fede emanez, azpian ageri garenok, horretarako beharrezko baimena izaki, Hitzarmen hau sinatzen dugu

Florentzian egina, 2000ko urriaren 20an, ingelesez eta frantsesez, bi testuek egiazkotasun berbera dutelarik, ale bakar batean, zeina Europako Kontseiluaren artxiboetan gordeko baita. Europako Kontseiluko Idazkari Nagusiak kopia ziurtatuak igorriko dizkie Estatuko Kontseiluko Estatu kide bakoitzari nahiz Hitzarmen honi atxikitzeko gonbidapena jaso duen Europako edozein Estaturi edo Europako Erkidegoari.